



GASTU ETA DIRU SARRERA KORRONTEEN EBOLUZIOA 1990/2022 ALDIA (MILA EUROETAN)

ALDIA	GASTU KORRONTEA	SARRERA KORRONTEA	ALDEA	% SARRERA KORR.I BURUZ
1990	6.520,53	9.767,92	3.247,39	33,25
1991	8.071,19	10.863,01	2.791,82	25,70
1992	8.660,91	12.550,89	3.889,98	30,99
1993	9.455,00	12.336,71	2.881,71	23,36
1994	10.336,41	13.078,00	2.741,59	20,96
1995	11.335,96	13.896,06	2.560,10	18,42
1996	11.612,34	14.712,51	3.100,16	21,07
1997	11.628,60	15.224,81	3.596,21	23,62
1998	11.254,50	15.707,83	4.453,33	28,35
1999	11.577,06	17.340,55	5.763,50	33,24
2000	12.407,90	19.991,32	7.583,42	37,93
2001	13.480,12	18.784,16	5.304,04	28,24
2002	14.097,90	19.140,00	5.042,10	26,34
2003	15.733,28	21.070,81	5.337,53	25,33
2004	17.018,25	24.461,19	7.442,94	30,43
2005	18.469,92	24.549,39	6.079,47	24,76
2006	19.598,02	27.650,81	8.052,79	29,12
2007	20.676,12	28.870,84	8.194,72	28,38
2008	22.574,11	28.469,48	5.895,37	26,11
2009	23.229,39	26.072,10	3.390,10	12,77
2010	22.622,13	27.608,56	4.985,43	18,06
2011	22.555,87	25.631,82	3.075,95	12,00
2012	22.121,79	26.665,20	4.534,41	17,04
2013	22.534,30	27.335,60	4.801,30	17,56
2014	23.293,83	29.347,56	6.053,73	20,63
2015	24.082,94	32.485,17	8.402,23	25,87
2016	24.917,32	30.983,42	6.066,10	19,58



2017	24.448,13	31.095,11	6.646,98	21,38
2018	25.414,20	32.405,25	6.985,53	21,56
2019	26.239,57	33.354,85	7.115,28	21,33
2020	26.660,84	31.141,15	4.480,31	14,39
2021(1)	26.985,33	32.576,70	5.591,37	17,16
2022 (2)	30.219,70	33.698,00	3.478,3	10,32

(2015etik aurrera Kiroldegiko datuak daude sartuta. 2014arte Aukea-ko kontabilizazioan bereiztuta zeuden)

- (1) 2021eko aurrekontuaren itxierari buruzko aurreikuspenaren arabera
- (2) 2022eko aurrekontuaren datuen arabera.

Koadro hau aztertzen hasi aurretik, komeni da hausnartzea Udal gastuaren egituraren zurruntasun handiagoari edo txikiagoari buruz, edo beste era batera esanda, hausnartzea gastu korrontean zer neurritaraino dagoen borondatezko izaera. Hausnarketa horrek informazioa eman behar digu gastuen zertarakoa (lehentasunei buruzko eztabaida) erabakitzeke orduan Udalak daukan maniobra marginari buruz eta, kasua balitz, beharrezkoagoak edo lehentasun handiagoak diren programetara baliabideak bideratzeko gaitasunari buruz. Ikuspuntu honetatik, azaleko azterketatik abiatuta, ematen du IV. kapituluko - Transferentzia Arrunten (Dirulaguntzak) zati handi bat izan daitekeela, hots, borondate eta diskrezionalitate maila handikoa. Baina hori beti ez da horrela izaten eta, berez, aztertzen badugu kapitulu horretan emandako laguntzen izaera (Mankomunitateko kuotak, Arrasate Musikalerako edo Goienarako laguntzak) justu kontrako konklusioetara hel gintezke, Udal konpromisoek izaera oso finkoa dutelako, bai gaur eta baita etorkizunerako. Dena den, eztabaida horrek aldagai subjektiboak dituenek (konklusio garbiak ateratzera zailtzen dutenak), eztabaida hori saihesten ahalegindu behar gara eta gaur egungo errealitatek (2020) abiatuta, oraingo maniobra margenean, bere bilakaerarekin batera, zentratu behar gara, aurrezpen arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko udal gaitasunari buruzko adierazle baliagarria suertatu daitekeelako.

Beraz, udal aurrekontuen datuak soilik aztertuta (1990-2019 epealdiko datuak benetakoak dira, itxierako likidazioetatik aterata, eta 2020-2021 epealdikoak balioespenak dira), eta kontsideratuz gastu korrontea dela Gastuen aurrekontuaren I. Kapitulutik IV. Kapitulura doan guztia batzea (langileak, ohiko erosketak, maileguen interesak, transferentzia korrontek – V.Kap.-Kreditu Globala ez da kontuan hartzen) eta diru-sarrerak korrontek direla I. Kapitulutik V. Kapitulura doazenak batzea (zuzeneko zergak, zeharkako zergak, tasak, transferentzia korrontek eta ondarezko diru-sarrerak), gastu eta sarrerak korronteen diferentzialaren (udal aurrezpena) eboluzioan, koadro honen bitartez argi bereizi ditzakegu ondorengo zikloak:

1990-1992 aldia; maniobra-margena edo gerakina nahiko onarekin (sarrera arruntei buruz %30a, gutxi gora behera) eta gastu eta sarreraren bilakaera orekatuarekin.

1993-1996 aldia; margena edo gerakina dexente murriztu zen (%20ra heldu arte), gastuaren gehikuntzaren erritmoa, sarreraren gehikuntzari buruz, askoz altuago izan zela (gastuak >%10a urtero eta sarrerak, gutxi gora behera %5a).

1997-2000 aldia; gastuaren egonkortasunarekin batera sarrera arruntak handitu ziren, horrela aldea progresiboki nabarmen hobetuz (urteko sarreraren %38 izateraino heltzen da).



2001-2003 aldia; diru-sarrera korronteak mantendu dira (urte baten jaitsi ere egin dira), eta horrekin batera gastua handitu egin da, eta horrek ekarri du diferentziala kaltetzea (%25eko inguruko zifretan).

2004-2007 aldia; diru-sarrera arruntak nabarmen handitu dira, eta horrekin batera gastu arruntak gehitu egin dira, gehitu ere diru-sarrerak baino gehiago. Beraz, diferentziala ez da hobetu (emaitza, ehunekotan, diru-sarrerei buruz, apur bat okerragoa da).

2008-2014 aldia (krisialdiaren urteak); nahiz eta gastuen kontrolaren saiakera egin, hain garrantzitsua izan zen diru-sarreraren murrizketa, bere ondorioa izan zela, sarrera arruntei buruz, bai kopuruetan bai portzentajeetan, diru sarrera – gastuen diferentziala aztertutako aldi osoaren baxuenak izatea (%20aren azpitik eta urte batzuk %13a besterik ez dela izan)

2015-2019 urteetarako, 2015ekoa salbuespen gisa utzita (ez ohiko sarrera handiak lortu zirelako - Ikuskaritza esparruan zerga likidazioak), diferentziala egonkortu da, sarreraren hazkundearekin (Aukeako sarrerak konputatzeaz gain, Foru Fondotik jasotako baliabideak ere handitu dira) batera mantendu dira gastuak. Horrek eragiten du berriro margena %20ren inguruan birkokatzea, sarrera arruntei buruz.

2020 urtean, aurrekontuaren exekuzioaren eboluzioaren arabera, esan behar da 2018koarekiko gastuak neurri txikian handitu zirela, baina sarrerak, ordea, nabarmen jaitsi ziren; Covid-19 pandemiak eragin zuen krisiaren ondorioz, eragina Foru Fondotik zetozen sarreratan ere izan zen (aurreikuspena hasierako aurrekontuarekiko ▼ 2,5 miloi gutxiago izatea zen, eta azkenean ▼ 1,6 miloi gutxiago izan zen), eta baita sarrera propioetan, zergak (Obra gaineko zergan bereziki), tasa eta prezio publikoetan (ura, zaborra, mahaiak eta aulkiak, eta kiroldegiko sarrerak), eta, ondorioz, margena aztertutako epealdi osoaren baxuenetakoa izan da.

2021erako, aurrekontuaren aurreikuspenen arabera, 2020 urtekoaren antzeko egoera izan zen, eta galdutako sarreraren zati bat berreskuratuko bada ere, Udalak aurretik zuen sarrera maila ez zen espero 2022 urtera arte berreskuratzea. Egoera hau eman da sarrera propioetan, baina Udalak Finantzatzeko Foru Funtsean egoera nabarmen hobetu da. Horrela, %6,63 margena aurreikusten bazen ere, %17,16koa izatera pasatu da, beti ere 2021eko aurrekontuaren itxiera aurreikuspenaren arabera, erabaki baitzen gastuen maila altua mantentzea (ahal izan zen eina inbertsioetan ere), covid-19 pandemiak eragindako egoerari aurre egiteko.

Bukatzeko, adierazi behar da 2022rako nabarmen handitu dela gastuen eta sarreraren aurreikuspena, Foru Funtsean goranzko aurreikuspena aprobetxatuz. Hala ere, diru-sarreraren eta gastuen arteko aldeak beherantz jarraitzen du, horrek dakarren arriskuarekin; aztertutako epealdi osoaren margen baxuena sortuz (%10,32).

Datu hauek behartzen gaituzte hausnarketa sakona egitera, batez ere kontuan hartzen badugu sarrera fiskalak (diru-bilketa) gehitzeko aukera txikiak daudela, eta zailtasunak izan ditzakegula erabaki batzuetan atzera egiteko (zerbitzu berrien inplantazioa, azpikontratutako zerbitzuen gehikuntzak eta hobekuntzak, etab.). Azken finean, helarazi nahi den ideia da konstziente izan behar garela inbertsioak finantzatzeko gaitasuna hobetu nahi bada ez dela nahikoa izango ekonomia koiuntura hobetzea eta sarrera gehiago lortzea, gastu atalean gastu berriak onartzeko orduan disziplina eta kontrol zorrotza aplikatzea ere behar beharrezkoa dela.

